Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren prestakuntza jardueren katalogoa lantzen jarraitu dugu.

*Se ha continuado con la elaboración del catálogo de las actividades formativas ofertadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

6. KIROL AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK

*6. INFRAESTRUCTURAS Y EQUIPAMIENTOS DEPORTIVOS.*

Euskadiko kirol instalazioen errolda bakarrari dagokionez, aplikazio informatikoarekin lanean jarraitu dugu, eta lankidetza-hitzarmen bat sinatu dugu Espainiako Kirol Kontseilu Gorenarekin, administrazio bien datuak koordinatzeko eta informazio-bilketa batera egiteko.

*En cuanto al Censo Único de Instalaciones Deportivas del País Vasco se ha continuado trabajando en la aplicación informática y se ha suscrito un Convenio de colaboración con el Consejo Superior de Deportes a fin de coordinar los datos de ambas administraciones y realizar la recogida de información de manera conjunta.*

Gainera, euskal federazioek Gipuzkoan dituzten egoitzak tokiz aldatzeko bidezko gestio-lanak egin ditugu. Txosten hau idazteko unean tokialdaketak jada burututa daude.

*Además, se han realizado las gestiones oportunas para el traslado a una nueva ubicación de las sedes de las federaciones Vascas con sede en Gipuzkoa. Traslado ya realizado a la hora de redactar la presente memoria.*

Gainera, estrategikotzat jotako beste azpiegitura batzuk ere diruz lagundu ditugu: Legutianoko estropada-eremua berreskuratzea, Orioko arraun eta piraguismorako teknifikazio-zentroa, Gasteizko Buesa Arena esparrua handitzea, eta Donostiako Kirol Egokituaren Zentroa eraikitzea.

*Además, se han apoyado económicamente otras infraestructuras, consideradas estratégicas, como son: la rehabilitación del campo de regatas de Legutiano, el Centro de Tecnificación de Remo y piragüismo de Orio, la ampliación del recinto Buesa Arena en Vitoria-Gasteiz y la construcción del Centro de deporte adaptado en Donostia.*

7. KIROL EREDUAREN ETA KIROLAREN EUSKAL SISTEMAREN INFORMAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Kirol Zuzendaritzaren 2010-2014 aldirako jarduna planifikatu dugu, Plan Estrategikoaren bitartez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen diru-sarrera publikoen eta kirol-lizentzien Mapa egin dugu, baliagarria izango baitugu euskal federazioen sistemaren gainean gogoeta egiteko tresna gisa.

*7. INFORMACIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL MODELO DEPORTIVO Y DEL SISTEMA VASCO DEL DEPORTE.*

*Se ha planificado la actividad de la Dirección de Deportes para el período 2010-2014 mediante la elaboración del Plan Estratégico.*

*Se ha realizado un Mapa de ingresos públicos y licencias deportivas de las Federaciones Deportivas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, como instrumento que servirá de reflexión respecto del sistema federativo vasco.*

8. BERRIKUNTZA KIROLAREN ARLOAN

2011tik aurrera garatu beharreko bi kirol-proiektu identifikatu dira, eta alor horretako hainbat forotan parte hartu dugu.

San Mames Barrian jarriko den Berrikuntza Zentroaren proiektua zehazten jardun dugu.

*8. INNOVACIÓN EN MATERIA DEPORTIVA.*

*Se han identificado dos proyectos deportivos a desarrollar a partir de 2011 y se ha participado en diferentes foros en esta materia.*

*Se ha trabajado en la concreción del proyecto del Centro de Innovación que se ubicará en el nuevo San Mamés Barria.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>1 - *Gastos de Personal* | 1.219 | 93% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>2 - *Gastos de funcionamiento* | 1.600 | 96% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak<br>4 - *Transf. y subv. para gastos corrientes* | 7.011 | 100% |
| Inbertsio Errealak<br>6 - *Inversiones reales* | 1 | -- |
| Kapital Eragiketetako Transf. eta Dirulaguntzak<br>7 - *Transf. y subv. Con destino a operaciones de capital* | 2.550 | 60% |
| Finantza-Aktiboen gehikuntza<br>8 - *Aumento de activos financieros* | 5.000 | 100% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** ***IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| *3 -* Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk *Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 29 | 88% |

**PROGRAMA**
4513 KULTURAREN SUSTAPENA

**ARDURADUNA**
11 KULTURA
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILBURUORDEA

HELBURUA

1. PROAKTIBITATEA KULTURAREN INDUSTRIARI ETA SEKTOREKO ENPLEGUARI EUSTEKO
2. SORKUNTZARI LAGUNTZA EMATEA EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESPARRUAN
3. LAGUNTZA EMATEA SEKTOREAN LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA BULTZATZEKO
4. KULTURA PERTSONA ORORENTZAT
5. KULTURA HURBILA DINAMIZATZEA
6. FINANTZAKETA ITURRI ETA SISTEMA BERRIEN BILAKETA ETA KUDEAKETA
7. KANPO PROIEKZIOA
8. KULTURA PARTE HARTZAILEA
9. KULTURA BESTE BATZUEKIN. ITUNAK
10. KULTURA AZPIEGITURETARAKO PROGRAMA-2008-2012 GARATZEA (KAP, 08/12)

BETETZE MAILA

1. PROAKTIBITATEA KULTURAREN INDUSTRIARI ETA SEKTOREKO ENPLEGUARI EUSTEKO.

1.1 ‘Kultura Bultzatuz’ programak jarraitu du arte eszenikoen kontratazioa bultzatzen, hiru lerro ezberdinetan:

-Kaleko antzerkia. Programa honen bidez, 23 udalerritako programazioak gauzatu dira, alegia, 94 emanaldi guztira.

-Dantza. Elkarlanean dFeria-rekin, bost emanaldi Donostiako Dantzaldiaren barruan. Dantzaren Zirkuituaren barruan, 68 ikuskizun.

-Musika zuzenean. ‘Kultura Live’ zuzeneko musika duten areto pribatuen Elkartearekin lankidetzan eta ‘Zuzen-Zuzenean’ programaren barruan, 50 kontzertu eman dira, 20 areto ezberdinetan eta 70 musika-talde baino gehiagoren eskutik.

1.2 Prestakuntza plan eta diseinuei dagokienez, KEBk eginiko azterlanaren ondorioz, aurten kultura-enpleguari buruzko lehen jardunaldia antolatu da, eta paradigma berriaren inguruko prestakuntza-proiektu bat diseinatu eta jarri da martxan. Proiektua urtearen bukaera aldean abiatu zen, eta 2011n aurrera egingo du, beraren diseinuan bateratuz esperientzien kontratea, gogoetarako proposamenak eta neurrirako zerbitzua.

1.3 Eskuartean ditugun txostenak xeheki aztertu ondoren eta hainbat kontsulta egin eta gero, ez zaigu komenigarria iruditu Kultur Industrien Institutua abian jartzea.

1.4 Oraindik ez dugu planteatu ‘Euskadi Film Commission’

***PROGRAMA***
*4513 PROMOCIÓN DE LA CULTURA*

***RESPONSABLE***
*11 CULTURA*
*VICECONSEJERO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES*

*OBJETIVO*

*1. PROACTIVIDAD EN EL MANTENIMIENTO DE LA INDUSTRIA CULTURAL Y EL EMPLEO*
*2. APOYO A LA CREACIÓN EN EL ÁMBITO DE LA CAE*
*3. APOYO A LA COMPETITIVIDAD Y A LA INNOVACIÓN EN EL SECTOR*
*4. CULTURA PARA TODAS LAS PERSONAS*
*5. DINAMIZACIÓN DE LA CULTURA DE PROXIMIDAD*
*6. BÚSQUEDA Y GESTIÓN DE NUEVAS FUENTES Y SISTEMAS DE FINANCIACIÓN*
*7. PROYECCIÓN EXTERIOR*
*8. CULTURA PARTICIPATIVA*
*9. CULTURA CON OTROS. ALIANZAS*
*10. DESARROLLO DEL PROGRAMA DE INFRAESTRUCTURAS CULTURALES 2008-2012 (PIC, 08/12)*

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. PROACTIVIDAD EN EL MANTENIMIENTO DE LA INDUSTRIA CULTURAL Y EL EMPLEO.*

*1.1 El Programa ‘Kultura Bultzatuz’ ha seguido estimulando la contratación escénica en tres líneas diferentes:*

*-El teatro de calle. Por medio de este programa se han apoyado las programaciones de un total de 23 municipios que han organizado un total de 94 funciones.*

*-La danza: en colaboración con dFeria, cinco actuaciones dentro de la feria donostiarra. Dentro del Circuito de Danza, 68 espectáculos diferentes.*

*-La música en vivo, en colaboración con la Asociación de Salas de Conciertos ‘Kultura Live’, dentro del programa “Zuzen-Zuzenean”, dentro del cual se han desarrollado 50 conciertos en 20 salas diferentes y con la participación de más de 70 bandas diferentes.*

*1.2 En relación a los planes y diseños de formación a lo largo de este año y fruto del estudio realizado por el OVC se ha organizado la primera Jornada de Empleo Cultural y se ha diseñado y puesto en marcha un proyecto formativo en torno al nuevo paradigma digital que tuvo su inició a final de año y tendrá su continuidad a lo largo del 2011 mezclando en su diseño, el contraste de experiencias, las propuestas más reflexivas y el servicio a medida.*

*1.3 Tras el análisis detallado de los informes existentes y nuevas consultas realizadas no se ha visto conveniente la puesta en marcha del Instituto de Industrias Culturales.*

*1.4 No se ha planteado aún el estudio de viabilidad de la*

egitasmoaren bideragarritasunari buruzko azterlana

1.5

1.5.1. Zuzeneko musika eta diskografia industriaren sektorean, orokorrean, musika-jarduera profesionalak laguntzeko deialdiaren bitartez, partitura edizio grafikoko proiektuetarako 5 laguntza eman dira; musika lanen ekoizpenerako 19 laguntza eta enpresa-proiektuetarako 11 laguntza.

1.5.2. Dantza sustatzeko dirulaguntza deialdiaren bitartez, konpainiak sendotzeko 2 proiektu lagundu dira; ekoizpen profesionaleko 11 proiektu eta profesionalentzako prestakuntza eta laguntzako 10 proiektu.

1.5.3. Film luzeen ekoizpena eta horien aurretiko faseena ere jarraitu dugu bultzatzen: lehenik eta behin, gidoi zinematografikoak sortzea bultzatu dugu; bigarrenik, hainbat proiekturen aurre-ekoizpena diruz lagundu, eta azkenik, garrantzitsuena, film luzeen ekoizpena bera diruz lagundu (horretan atal bereiziak ezarri dira: zinemarako diren fikziozko film luzeak, telebistarako diren fikziozko film luzeak, animazioko film luzeak, sorkuntza dokumentalak eta film laburrak. Honako hauek dira lagundutako proiektuak: Gidoiak, 9 proiektu; Garapena (aurre-ekoizpena), 14 proiektu; Zinemarako diren fikziozko film luzeen ekoizpena, 5 proiektu; Telebistarako diren fikziozko film luzeen ekoizpena, 3 proiektu, Animaziozko film luzeen ekoizpena, 3 proiektu; Dokumentalen ekoizpena, 12 proiektu; film laburrak, 14 proiektu.

Halaber, euskarri berrietan ikus-entzunezko edukien sorkuntza eta ekoizpenerako dirulaguntzak argitaratu dira. Aurrenekoan 4 film luze lagundu dira eta bigarrenean 11 proiektu.

1.5.4 Antzerki konpainien ekoizpen garrantzitsuenak bultzatzen jarraitu dugu, sektore ezberdinen beharrei eta interesei erantzun nahian. Horregatik, arlo honetan, alde batetik konpainia gazteen ekoizpenak babestu ditugu, beste aldetik orokorki konpaini guztienak, eta azkenik bi urtetan garatzekoak diren antzerki-egitarauak bultzatzeko laguntzak bideratu ditugu, dagoeneko sendoturik dauden antzerki-enpresak laguntzeko asmoz. Horrela konpainia finkatuen bi urtetarako 4 proiektu lagundu dira eta 10 ekoizpen, hauetatik 3 konpaini sortu berrienak. Denera 815.000 € banatu dira.

1.5.5. Liburuaren eta Literaturaren sektorean, 27 argitaletxek euskaraz argitaraturiko 353 liburutarako dirulaguntzak, eta 19 argitaletxek gaztelaniaz argitaraturiko 143 liburutarako dirulaguntzak jaso dituzte, kalitatezko euskal literatura ekoizpena eta euskal argitaletxeen sektorearen mantentzea bultzatuz.

2. SORKUNTZARI LAGUNTZA EMATEA EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESPARRUAN**.**

2.1 Aurrez hiru azterlan egin ondoren eta eredu teoriko bat landu eta gero, sorkuntza-lantegien jardunean aurrera egiteko bideari eutsiz, dirulaguntza hauek eman ditugu:

*Euskadi Film Commission.*

*1.5*

*1.5.1. En los ámbitos de producción de contenidos culturales, en cuanto a la música en vivo y la Industria musical en general, a través de la convocatoria de ayudas para actividades musicales profesionales se han apoyado 5 para proyectos de edición impresa de partituras; 19 para producción de obras musicales y 11 proyectos desarrollados por las empresas musicales.*

*1.5.2. A través de la convocatoria de ayudas a la Danza han sido subvencionados 2 proyectos para la consolidación de compañías, 11 proyectos de producción profesional y 10 proyectos de formación permanente y apoyo a la actividad profesional.*

*1.5.3. Se ha continuado ayudando también la producción de largometrajes y sus fases previas: en primer lugar, ayudando a la creación de nuevos guiones cinematográficos, posteriormente subvencionando el desarrollo de varios proyectos en fase de preproducción y por último y sobre todo, ayudando económicamente la producción de largometrajes propiamente dicha, en la que se han mantenido tramos diferenciados de ayudas a los largometrajes cinematográficos de ficción, largometrajes televisivos de ficción (TV-movies), largometrajes de animación, documentales de creación y cortometrajes. Se han subvencionado los siguientes proyectos: Guiones, 9 proyectos; Desarrollo (preproducción), 14 proyectos; Producción de largometrajes cinematográficos de ficción, 5 proyectos; Producción de largometrajes televisivos de ficción (TV-movies, 3 proyectos, Producción de largometrajes de animación, 3 proyectos; Producción de documentales, 12 proyectos; Cortometrajes, 14 proyectos.*

*Asimismo, se han convocado subvenciones para la creación y producción de contenidos audiovisuales en nuevos soportes. En el primero se han subvencionado 4 largometrajes y en el segundo, 11 proyectos.*

*1.5.4. Se ha continuado con el apoyo a la producción teatral profesional intentando responder a las necesidades e intereses de los diferentes sectores teatrales. Es por ello que en este campo se establecen unas ayudas especialmente dirigidas a las producciones de compañías jóvenes, otras dirigidas a todas las compañías en general y las últimas, dirigidas a los proyectos teatrales destinados a desarrollarse durante dos años, con el ánimo de ayudar a las empresas de teatro más consolidadas. Se han apoyado un total de 4 proyectos bianuales de compañías consolidadas y 10 producciones, por una cantidad total de 815.000 €.*

*1.5.5. En el sector del Libro y la Literatura, se han concedido ayudas a 27 editoriales para la edición de 353 obras de carácter literario escritas en euskera, y a 19 editoriales para la edición de 143 obras de carácter literario escritas en castellano, contribuyendo así al mantenimiento del sector editorial vasco y a la existencia de una producción literaria de calidad.*

*2. APOYO A LA CREACIÓN EN EL ÁMBITO DE LA CAE.*

*2.1. Tras la realización de tres estudios previos y la elaboración de un modelo teórico, con el ánimo de avanzar en el campo de actuación relativo a las Fábricas de Creación, se han concedido las siguientes*

-La Hacería-ri, ZAWP proiektua aurrera eramateko eta 2010eko jarduera-plana garatzeko: 55.000 €.

-Krea-ri, DERHUMA proiektu multidiziplinarra garatzeko: 35.000 €.

-Eskena-ri, HARROBIA zentroaren proiektua garatzeko e ta martxan jartzeko: 15.000 €.

-A+A-ri (Arte Publikoaren Amarika Elkartea), "Zaramagako lanteagiak" proiektua garatzeko: 17.000 €.

-ALFAARTE-ri, 'Artea eta Industria' egoitza-programa gauzatzeko: 60.000€.

Bestalde, honako dirulaguntza hauek eman dira Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko urteko Aurrekontu Orokorren 2010 Ezohiko Planaren kargura:

-500.000 euroko dirulaguntza LAN EKINTZA-BILBAO, S.A. enpresari (Bilboko Udalaren enpresa publikoa), Zorrotzaurren (Bilbao) hainbat Sorkuntza Lantegi birgaitu eta egokitzeko.

-300.000 euroko dirulaguntza ESKENA elkarteari (Euskadiko Produkzio Eszenikoen Enpresa Elkartua), HARROBI Produkzio Eszeniko Profesionaleko Berrikuntza Zentroan inbertsioak egiteko.

-Hitzarmen bat Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailarekin, "Zaramagako Lantegiak" proiekturako lokalak birgaitzeko: 300.000 €.

2.2 Folklore tradizionalaren I+G+B Laborategiaren proiektua (funtzionamendu-ereduaren ikerketa eta garapenerako gaurko lerroen azterketa) Sorkuntza lantegien eredu zabalagoan sartu da.

2.3 Egoitza programak Konpainia egoiliarren programaren aurrerapauso gisa bi antzerki konpainiaren egonaldia udal antzokietan lagundu dira. Programa honekin sektore publikoa eta pribatuaren arteko elkarlana bultzatu nahi da, horrela arte eszenikoen sustapenari ikuspegi orokor batetik ekin ahal izateko.

2.4 Jarraitu dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin elkarlanean, eta hainbat bilera egin ditugu Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren Plan Zuzentzailea lantzeko, Planaren ezarpenari begira.

2.5 Antzerkiaren esparruan, egoitzen lehenengo bi esperientziak egin dira, alegia, udal administrazioaren eta antzerki-taldeen arteko kolaborazio-proiektuak bultzatzeko xedea dutenak. Proiektu horiek aurrera eramateko, dirulaguntza bana eman zaie Amorebieta-Etxanoko udalari (Bizkaia) eta Zigoitiko udalari (Araba), hurrenez-hurren Markeliñe eta Panta Rhei taldeekin.

2.6.

2.6.1. Sorkuntza-esparruetan, dantzari dagokionez,

*subvenciones:*

*-A La Hacería, para el Proyecto ZAWP para desarrollo del proyecto y el plan de actividad del 2010, por valor de 55.000 €.*

*-A Krea, para el desarrollo del proyecto multidisciplinar DERHUMA, por valor de 35.000 €.*

*-A Eskena, para el desarrollo del Proyecto y puesta en marcha del centro HARROBIA, por valor de 15.000 €.*

*-A A+A (Asociación Amarika de Arte Público) para el desarrollo del proyecto 'Talleres de Zaramaga', dotado con 17.000 €.*

*-A ALFAARTE, para la ejecución del programa de residencia 'Arte e Industria', por una cantidad de 60.000€.*

*Por su parte, con cargo al Plan Extraordinario 2010 de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010 se han concedido las siguientes:*

*-Una subvención de 500.000 euros a LAN EKINTZA-BILBAO, S.A. (sociedad pública del Ayuntamiento de Bilbao) para rehabilitación y acondicionamiento de Fábricas de Creación en Zorrotzaurre (Bilbao).*

*-Una subvención de 300.000 euros a la asociación ESKENA (Empresas de Producción Escénica Asociadas de Euskadi) para la realización de inversiones en HARROBI, Centro de Innovación en Producción Escénica Profesional.*

*-Un convenio con el Departamento de Cultura de la Diputación de Araba para la rehabilitación de locales destinados al proyecto 'Talleres de Zaramaga', con una aportación de 300.000 €.*

*2.2. El proyecto de Laboratorio de I+D+i de folklore tradicional (estudio de líneas actuales de investigación y desarrollo del modelo de funcionamiento) se ha incluido en el marco más amplio del modelo de Fábricas de Creación.*

*2.3. Programa de Residencias. Como primer paso de la implantación de un programa de compañías residentes que permita una avanzar en la colaboración entre el sector público y privado y permita abordar proyectos globales de promoción de las artes escénicas se han apoyado dos experiencias de residencia de compañías teatrales en teatros de titularidad municipal.*

*2.4. Se ha seguido cooperando con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación manteniendo reuniones para la elaboración del Plan Director de la Escuela Superior de artes Escénicas y su adecuación a los intereses de Cultura, de cara a su implantación.*

*2.5. En el ámbito del teatro, han tenido lugar las dos primeras experiencias de Residencias, que tienen como fin propiciar proyectos colaborativos entre la administración municipal y colectivos teatrales. Por valor cada una de 25.000 € se han otorgado subvenciones al Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano (Bizkaia) y al Ayuntamiento de Zigoitia (Araba) para el desarrollo de dichos proyectos con los grupos Markeliñe y Panta Rhei, respectivamente.*

*2.6.*

*2.6.1. En los ámbitos de creación, en cuanto a la danza, a*

koreografia laburrezko 9 sorkuntza lan lagundu dira ohiko dirulaguntza deialdiaren bidez.

*través de la convocatoria de ayudas habitual, se han subvencionado 9 proyectos de creación coreográfica de corta duración.*

2.6.2 Musika jarduera profesionalentzako dirulaguntzen deialdiaren bidez, musika-konposiziorako 10 proiektu lagundu dira.

*2.6.2. A través de la convocatoria de ayudas para actividades musicales profesionales, se han apoyado 10 proyectos de composición musical.*

2.6.3. Gerora film luzeak bihur litezkeen zinema-gidoi berriak sortzen laguntzen jarraitu dugu.

*2.6.3. Se ha continuado ayudando también la creación de nuevos guiones cinematográficos susceptibles de convertirse en producciones.*

2.6.4. Alde batetik, antzerki-testu berriak diruz laguntzen jarraitu dugu, geroko geroan antzerki ekoizpenen baten oinarri izan daitezkeelakoan. Gainera, euskarazko 3 antzerki-testu eta gaztelerazkoak beste 3 lagundu dira, 42.000 eurorekin.

*2.6.4. Se ha seguido subvencionando la realización de nuevos textos teatrales susceptibles de convertirse en producciones en su día. Se ha apoyado la realización de 6 textos teatrales, 3 en euskera y otros tantos en castellano por una cantidad total de 42.000 €.*

2.6.5. 2010 urtean arte plastiko eta ikusizkoen arloan sorkuntza-ekoizpena bultzatu dugu diru-laguntza deialdiaren bitartez. Guztira 25 proiektu diruz lagundu dira, deialdian aurreikusitako guztiak. Zehazki esanda, eman dira 12.000 euroko 3 laguntza, 8.000 euroko 8 laguntza eta 5.000ko 14 laguntza; banatutako diru-kopurura ekoizpenerako aurreikusitako guztia banatu da: 170.000 euro.

*2.6.5. En 2010 se ha impulsado la creación-producción en el área de artes plásticas y visuales mediante la convocatoria de ayudas. Se han apoyado el total de proyectos propuestos en la convocatoria (25). Así se han concedido 3 ayudas de 12.000 euros, 8 de 8.000 y 14 de 5.000, por un total de 170.000 euros el total de la cantidad prevista.*

2.6.6. Jatorriz euskaraz idatzitzako lanak eta euskal idazleek gaztelaniaz idatzitako lanak, beste hizkuntzetara itzultzeko, 36 dirulaguntza eman dira, horrela haien edizioa bultzatuz.

*2.6.6. Se han concedido ayudas para la traducción a otras lenguas de 36 obras literarias escritas originalmente en euskera, o escritas en castellano por autores vascos, posibilitando así su edición.*

2.6.7. Euskadi Literatura Sarien 2010. urteko edizioaren deialdia egin da, iazko bost modalitateetan (euskarazko literatura, gaztelaniazko literatura, euskarazko haur eta gazteentzako literatura, euskararako literatura itzulpena eta ilustrazioa). Gainera, hiru modalitate berri sortu dira: gaztelaniazko haur eta gazteentzako literatura, euskarazko saiakera eta gaztelaniazko saiakera. Hautagaiak aukeratu, sariak ebatzi (modalitate bat eman gabe gelditu zen), eta sariok Lehendakariak eta Kultura sailburuak emateko ekitaldia antolatu da.

*2.6.7. Se ha convocado la edición 2010 de los Premios Euskadi de Literatura en sus cinco modalidades anteriores: literatura en euskera, literatura en castellano, literatura infantil y juvenil en euskera, traducción literaria al euskera e Ilustración, creándose tres nuevas modalidades: literatura infantil y juvenil en castellano, ensayo en euskera y ensayo en castellano. Se determinaron los finalistas, se resolvieron los premios (quedando una modalidad desierta), y se organizó el acto de entrega de los mismos por parte del Lehendakari y la consejera de Cultura.*

3. LAGUNTZA EMATEA SEKTOREAN LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA BULTZATZEKO.

*3. APOYO A LA COMPETITIVIDAD Y A LA INNOVACIÓN EN EL SECTOR.*

3.1. 2010eko martxoan abian jarri da Kulturklik Euskal Kulturaren Atari Interaktiboa. Urtearen bukaeran 14.500 sarrera zituen, eta 150.000 erabiltzaile.

*3. 1. En marzo de 2010 se ha puesto en marcha Kulturklik el portal interactivo de la Cultura Vasca que a final de año albergaba ya 14.500 entradas y un tráfico de 150.000 usuarios.*

3.2 Digitalizazioak duen eraginari buruzko azterketari ekin diogu, liburuguntza, ikus-entzunezko eta musikagintzaren ordezkariekin batera, eta haren ondorioz lau proiektu bultzatzaile abiatu ditugu aurten, honako arlo hauekin erlazionatuta: laguntza-eredu berriak, prestakuntza-ekintzak, euskal kulturaren mapa digitala, eta kultura-enpresek sorturiko edukiak biltegi digital berri batean integratzeko azterketa.

*3.2. Junto con representantes de sectores del libro, el audiovisual y la música se ha abordado un proceso de análisis de la incidencia de lo digital que ha llevado a definir y poner en marcha cuatro grandes proyectos tractores a lo largo de este año relacionados con nuevos modelos de ayudas, acciones formativas, un mapeado digital de la cultura vasca y el análisis para la integración de contenidos generados por empresas culturales en un nuevo repositorio digital.*

3.3 Kulturklik abian jarri ondoren, baztertu egin dugu musikari eskainitako atari espezifiko bat sortzea, gure ustez euskal kulturaren eskaintza molde integratu batean aurkeztu behar baita.

*3.3. Tras el lanzamiento de kulturklik se ha descartado la creación de un portal específico para la música al entender que la oferta cultural vasca debe presentarse ante los usuarios de una manera integrada.*

3.4 Ezin izan dugu sarbide libreko euskarri digitaleko argitalpenik martxan jarri, beharrezkoa ikusi dugulako, enpresekin batera egindako gogoetaren ondorioz, formatuen normalizazioan sakontzea.

*3.4. No se ha podido realizar la puesta en marcha de publicaciones en acceso libro en soporte digital al ser necesario, tras el análisis realizado con las empresas de ahondar en la normalización de formatos.*

3.5. Kulturaren Euskal Behatokia (KEB) garatzea.

Kulturaren Euskal Behatokiak, 2006an martxan jarri zenean funtzioak betetzeko oinarri kontzeptualak eta operatiboak finkatzea izan da Kultura Behatokiaren lan nagusia: euskal kulturaren informazio-sistema eratzea, harremanetan eta lankidetzan oinarritutako planteamendutik abiatuta eta aldi berean sektoreari perspektiba eskaini errealitatea ulertu eta aldatzeko.

2010ean oinarrizko informazioa sortu eta aztertu; beste iturrietatik jasotako informazioa tratatu eta ikerketa kualitatiboak konbinatu dira.

2010eko balantzea egiteko orduan ekintza planaren oinarri diren hiru ardatz nagusiak kontuan hartuz emaitzarik nagusienak zehaztuko ditugu ondoren:

Informazioa, hausnarketa eta elkartrukaketa: sorkuntza lantegien txostena; kultura diplomaziari buruzko txostena; gazteak eta kultura kontsumo berriak azterketa; kulturaren %1aren gaineko prospekzio azterketa; kultura finantzaketa lerroen azterketa; joeren gaineko 4 txosten.

Informazio sistema: geuk aurrera emandako estatistika eragiketak; beste iturrietako informazioa eta praktika egokiak eta teknika kualitatibo ikerketak:

Estatistika eragiketak:

Artxiboen eragiketa: landa lanaren jarraipena, kalitatearen kontrola, datuen azterketa eta estimaziorako jarraibideak.

Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan: landa lanaren jarraipena, emaitza txostena eta estatistika taulak. Horretaz gain informazio iturri izan diren 192 erakunderi banakako fitxa egin zaie.

Arte eta Kultura Industrien eragiketa: 2010eko edizioari dagokion eragiketa martxan jarri eta landa lanaren jarraipena egin.

Azterketa estatistikoak:

“Kultura enpresa eta lanbideak” sintesi txostena ondorengo iturriak erabili eta aztertuz (INE, EUSTAT; Eusko Jaurlaritzako Enplegu saila).

Erakunde zein sektoreekin komunikazioa eta harremanak:

Kultura Behatokiaren emaitzen zabalkundea:

Argitalpen digitalak: Estatistika eta Ikerketa Bilduman 5 titulu; 4 ikerketa, Memoria “kultura 08-09” urtekaria eta 2010eko oroitza txostena.

Datu eta adierazleen datu bankua: estatistiken emaitza datuen kontsulta dinamikorako emaitza txertatu aplikazioan.

Kulturaren Euskal Behatokiaren web gunea: sortutako informazioa etengabe txertatu. Arte eta Kultura Industrien direktorioak, estatistika eta azterketen bilduma, 2010eko oroitza.

Ezagutza berriak zabaldu:

Kulturklik kanal berriaren bidez argitalpenak, jardunaldiak,

*3.5. Desarrollo del Observatorio Vasco de la Cultura(OVC)*

*La actividad principal del Observatorio Vasco de la Cultura, desde su puesta en marcha en el 2006, ha consistido en sentar las bases conceptuales y operativas que hicieran posible el cumplimiento de las funciones para las que fue gestado: construir un cuerpo de información y análisis de la cultura vasca desde un planteamiento relacional y cooperativa, que a su vez, ofrece perspectiva al sector para entender la realidad y transformarla.*

*Durante el 2010 se han combinado la generación de información estadística de base y su posterior análisis; el tratamiento de información de fuentes secundarias y los estudios cualitativos.*

*Para realizar el balance del 2010 describimos a continuación los principales resultados, tomando como referencia los tres ejes sobre los que se sustenta el programa de actuación:*

*Información, reflexión y contraste: informe sobre fábricas de creación; estudio sobre diplomacia cultural; estudio sobre jóvenes y nuevos consumos culturales; estudio prospectivo sobre el 1% cultural; Análisis de las líneas de financiación cultural; 4 informes sobre detección de tendencias.*

*Sistemas de información: operaciones estadísticas propias y fuentes secundarias; estudios de análisis de buenas prácticas y técnicas cualitativas:*

*Operaciones estadísticas:*

*Estadística de Archivos: seguimiento del trabajo de campo y control de calidad; análisis y orientación de estimaciones.*

*Estadística de Financiación y Gasto Público en Cultura: seguimiento de la operación de campo, informe de resultados y anexo de tablas estadísticas e fichas individualizadas a las 192 fuentes de información.*

*Estadísticas de las Artes e Industrias culturales: lanzamiento de la operación de la edición de 2010 y seguimiento del trabajo de campo.*

*Estudios estadísticos:*

*“Los empleos y empresas de la cultura”. Operación de síntesis de estadísticas de (INE, EUSTAT, Departamento de Empleo del Gobierno Vasco).*

*Comunicación y relaciones institucionales y sectoriales:*

*Difusión de los resultados del Observatorio:*

*Publicaciones Digitales: Publicación de cinco títulos dentro de la Colección de Estadísticas y Estudios; cuatro investigaciones y el anuario del Observatorio “Kultura 08-09” y Memoria 2010.*

*Banco de datos e indicadores: incorporación de los resultados de las estadísticas a disposición del público mediante consulta dinámica de datos.*

*Web del Observatorio Vasco de la Cultura: actualización permanente de la información generada. Directorios de Artes e Industrias culturales, colección de estadísticas y estudios y memoria 2010,*

*Difusión de noticias de conocimiento:*

*Publicación de los estudios, jornadas, bibliografía y*

bibliografia eta esperientzia berriak zabaldu.

"Kulturkaria" buletin elektronikoaren 8, 9, 10, 11, 13 eta 14. alea egin eta zabaldu. Hiruhilabetekoa barik hilerokoa bilakatu da.

Zabalkunde, kontraste eta hausnarketa jarduerak:

Kultura Behatokiaren sare lana: Turinen buruturiko IV Lan Jardunaldietan parte hartu.

Sektoreko jendearekin lantaldeak eta jardunaldiak sortzaile, kultura industrietako ordezkari eta kudeatzaile publikoekin. Proiektuen kontrastea, ezagutza partekatu zein esperientzietatik ikasteko bidea dugu hau.

Informazio eskaera eta kontsultei erantzun: argitalpenak bidali, eskaturiko datuak eman, ikerketen edukiak, bibliografia zein kultura estatistikak egiteko orientabideak eman dira.

4. KULTURA PERTSONA ORORENTZAT .

4. 1. Leihatila bakarra martxan jartzeko lehenengo txostena eskatu dugu.

4.2 Ez da aurrera atera D egunen proposamena, ekintza hori integratuta dagoelako Kulturen aldeko Herritartasun Kontratu berrian, zeinak egokiro koordinatu behar baita udalerriekin, arrakasta izango badu. Europar Zinemaren Astea egin da bakarrik, maiatzaren hasieran, Europaren Eguna ospatzeko.

4.3 Kulturartekotasunaren programari dagokionez, Afrikaren Egunean parte hartu genuen, Kanpo Arazoetarako eta Garapenerako Ministerioarekin, Bilboko udalarekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean.

4.4.

4.4.1. 'Musika Bultzatuz' eta 'Euskadiko Soinuak' programaren barruan, hain zuzen, sektore lankidetza proiektuen bitartez, musika herrikoi profesionala eta enpresa-jarduera laguntzea helburuak dituena, zuzenean lan egin da enpresa proiektuak laguntzeko medioetan presentzia kanpainen bitartez. Halaber, enpresa sektore eta kultura hurbilaren helburuarekin, 'Zuzen-Zuzenean' musika zirkuituaren bigarren edizioa egin da. Bertan 50 kontzertu antolatu dira, musika areto pribatuetan, 70 euskal talde baino gehiagok parte hartu dutelarik.

4.4.2. Zabalkunde jarduerei dagokienez, Dantza garaikidearen Zirkuituaren seigarren edizioa aipatu behar da. Horren bitartez, 67 emanaldi programatu ziren Erkidego Autonomoko 16 herritako 18 antzoki edo espaziotan.

Gainera, laguntza modalitate horren harira, Dantzan Bilaka programaren laugarren edizioa gauzatu zen. Ekintza honek sorkuntza, ikerketa eta zabalkunde alorretan eragiten du, aurreko urtean diruz lagundutako koreografo gazteen lana laguntzen delarik, baita publikoari ezagutzera eman ere.

*experiencias en el nuevo canal de difusión Kulturklik.*

*Elaboración y difusión del boletín electrónico Kulturkaria: números 8, 9, 10, 11, 12, 13 y 14. Pasando a ser mensual en lugar de trimestral.*

*Acciones de difusión, contraste y reflexión:*

*Red de trabajo de observatorios: participación en las IV Jornadas de trabajo con otros observatorios de Cultura en Turín.*

*Grupos de trabajo y encuentros con gente del sector, desde creadores a representantes de las industrias culturales o gestores públicos para contraste de proyectos, compartir conocimiento y aprender de su experiencia.*

*Atención a consultas y solicitudes de información: demandas de publicaciones, datos, contenidos de estudios, bibliografía, orientaciones sobre estadística en cultura.*

*4. CULTURA PARA TODAS LAS PERSONAS.*

*4. 1. Se ha solicitado un primer informe para la puesta en marcha de la taquilla única.*

*4.2. No se han llevado adelante las propuestas de los Días D al ser una acción integrada en el nuevo Contrato Ciudadano por las Culturas que debe contar para su éxito con una adecuada coordinación con los municipios. Únicamente se llevó a cabo una Semana del Cine Europeo a principios de mayo para conmemorar el día de Europa.*

*4.3. En cuanto al Programa de interculturalidad, se participó en el Día de África, en colaboración con Casa África del Ministerio de Asuntos Exteriores y Cooperación, el Ayuntamiento de Bilbao y otras instituciones.*

*4.4.*

*4.4.1. En los ámbitos de difusión, y en concreto en el área cultural de la música, en el marco de los programas 'Musika Bultzatuz' y 'Euskadiko Soinuak', cuyos objetivos son el apoyo a la música popular profesional y al tejido empresarial, mediante proyectos de colaboración sectorial, se ha trabajado de forma directa con el objetivo de apoyar al sector musical empresarial, a través de campañas de presencia en medios. Asimismo, con el objetivo de alimentar la actividad empresarial sectorial y la cultura de proximidad se ha desarrollado la segunda edición del Circuito musical 'Zuzen-Zuzenean', con la organización de 50 conciertos en los que han participado 70 grupos vascos en salas privadas de música en directo.*

*4.4.2. También hay que destacar la celebración de la sexta edición del Circuito de danza contemporánea, en el que se programaron 67 representaciones en 18 teatros o espacios de 16 localidades de la Comunidad Autónoma.*

*Además, al hilo de esa misma modalidad de ayudas, se celebró la cuarta edición del programa Dantzan Bilaka, actividad que incide en los ámbitos de la creación, la investigación y la difusión de la danza contemporánea, apoyando y dando a conocer los trabajos de creación coreográfica subvencionados en la convocatoria de ayudas del año anterior.*

4.4.3. “Kale Antzerkia bultzatuz”. 2010eko jardunaldian “Antzerkia Bultzatuz” programaren bigarren edizioa egin da, honako honetan kale antzerkia egiten duten konpainiei zuzenduta, baita ere arte eszenikoen arlo honetako enpleguari eusteko helburuarekin. Programa honen bitartez 23 udaletako programazioak lagundu dira, guztira 94 emanaldi. Honen eraginez herri hauetako kale antzerkiaren programazioak %34ko igoera izan du.

*4.4.3.”Kale Antzerkia bultzatuz”. Durante el ejercicio 2010 se ha llevado adelante una segunda edición del programa “Antzerkia Bultzatuz” esta vez dirigida a las compañías de teatro de calle con el objetivo de sostener el empleo también en este sector de las artes escénicas. Por medio de este programa se han apoyado las programaciones de un total de 23 municipios que han organizado un total de 94 funciones lo que ha supuesto un aumento del 34% con respecto al año anterior.*

Orobat, Euskal Antzokien Sarearen lanak aurrera egin du, bere bulego teknikoaren zereginak eta bertan sarturik dauden antzoki eta erakundeen lana errazteko eta hiritarrei informazioa eskaintzeko, Informazio-zerbitzu bat sendotuz. Sarearen barruan, dantza zirkuitua ere egin dugu, arte eszenikoen programazio osoaren barruan dantzaren programazio iraunkorra bultzatu asmoz.

*Asimismo, ha continuado su actividad la Red Vasca de Teatros SAREA, impulsando el trabajo de su Oficina Técnica y consolidando su Sistema de Información para facilitar el trabajo de los teatros e Instituciones insertos en la red y para ofrecer información a la ciudadanía. En este mismo marco de Sarea se ha llevado a cabo el circuito de danza para potenciar la programación estable de danza dentro de la programación general de las artes escénicas.*

4.4.4. Arte Plastiko eta ikusizkoen arloan diru-laguntzen deialdiaren bidez Zabalkundearen Arloan hainbat jarduera bultzatzen jarraitu da arte garaikideko gertakizunak antolatzea edota haietan parte hartzea lagunduz (erakusketak, egoiliar gisako proiektuak, batzarrak, lantegiak…), eta katalogoak eta argitalpenak editatzea. 30 diru-laguntza esleitu dira eta aurreikusitako diru-kopuru osoa banatu da: 250.000 euro. Halaber hirugarren urtez Formakuntza arloko diru-laguntzekin jarraitu da. Laguntzok sektoreko profesionalen prestakuntza hobetzeari begira daude. 8 diru-laguntza esleitu dira.

*4.4.4. En el campo de las artes plásticas y visuales se ha continuado impulsando mediante la convocatoria de ayudas acciones de promoción y difusión de las artes visuales apoyando la organización y/o participación de agentes del sector en eventos y manifestaciones de arte contemporáneos (exposiciones, residencias, encuentros talleres…) y la edición de catálogos y publicaciones. Se han concedido 30 ayudas por el total previsto, 250.000 euros. Asimismo por tercer año se ha continuado con la línea de ayudas dirigidas al perfeccionamiento de los profesionales del sector. Se han concedido 8 ayudas.*

Bestalde Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak 2010 urtean arte garaikidea sustatu eta zabaltzeko EREMUAK 2010-2011 PROGRAMA martxan jarri du. Programa hau Euskadiko testuinguru sortzailea ekoiztera, indartzera eta ikustaraztera zuzenduta dago; parte hartzeari dagokionean berriz, irekia dago praktika eta egile guztiei; batzorde tekniko bati dagokio ekitaldi bakoitza definitzea eta zehaztea. Azkenik programa aurrera eramateko entitate edo zentro batek bere baitan jasoko du (Artium). 2010 urtean gehien bat programaren definizio inguruan lan egin da: oinarrizko lerro nagusietan; programaren komunikazioan (komunikazio plana, web orrialdea, irudi korporatiboa). Halaber Batzorde Teknikoa osatu da eta 2010-2011 ekitaldiko exekuzioaren lehenengo faseari hasiera eman zaio, horretarako programan parte hartzeko deialdia atera da.

*En 2010 la Dirección de Promoción de la Cultura ha puesto en marcha el programa EREMUAK 2010-2011, de promoción y difusión del arte contemporáneo. Es un programa bienal orientado a producir, fortalecer y visualizar el contexto creativo en Euskadi. Está abierto a todo tipo de participación, prácticas y autorías artísticas, siendo una Comisión Técnica la encargada de definir cada edición. El programa para su desarrollo cuenta con un centro/entidad de acogida (Artium). En 2010 se ha trabajado fundamentalmente en su definición: en las líneas sobre las que se desarrolla, en los elementos de comunicación del programa (plan de comunicación, página Web, imagen corporativa). Asimismo se ha constituido la Comisión Técnica y se ha iniciado la primera fase de ejecución de la edición 2010-2011 con la publicación de la convocatoria de acceso al programa.*

4.4.5 Euskadiko Autonomia Erkidegoaren barruan liburuak sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak laguntzen jarraitu dugu. Horretarako, 6 dirulaguntza eman dugu, literatur elkartzeak edo zabalkundekoak antolatzeko, baita sustapen eta zabalkunderako bestelako jarduerak ere.

*4.4.5. Se ha continuado con el apoyo a las actividades de promoción y difusión del libro dentro de la Comunidad Autónoma, por medio de 6 subvenciones a la organización de encuentros literarios o divulgativos y de otras actividades de promoción y difusión del libro.*

Bestalde, fikziozko eta animaziozko film luzeen eta sorkuntzazko dokumentalen promozioa eta publizitatea babesten jarraitu da.

*Por otro lado, se ha continuado apoyando la promoción y publicidad de largometrajes de ficción y animación y documentales de creación*

Lehengo aldiz atera da dirulaguntza deialdi bat zine aretoei zuzendua Europar Erkidegoko eta Iberamerikako filmen kopia eskuratzeko helburuarekin. Hori dela eta lankidetza hitzarmen bat sinatu da Kultura Ministerioarekin diru ekarpenarekin lagundu baitute.

*Por primera vez se han convocado subvenciones destinadas a salas cinematográficas con el objeto de acceder a copias de películas comunitarias e iberoamericanas. Con dicho motivo se ha suscrito un convenio de colaboración con el Ministerio de Cultura que ha colaborado en la misma con una aportación económica.*

4.5 EAEko Publikoen Plan Integratua diseinatzeko Eskena-ren gidaritzapean Autor fundazioak markatutako metodoari jarraituz, bi ikerketa osagarri egin dira Gazteriaren eta Euskararen alorretan. Horrenbestez,

*4.5. Continuando con el método trazado para el diseño de un Plan Integrado de Públicos para la CAE, realizado por la Fundación Autor bajo la dirección de Eskena, se han realizado dos investigaciones complementarias en los*

bukatutzat eman dugu landa-lanen fasea. Ekintza-pilotuen programa bat idatzi dugu, 2011. urtean egiaztatuko dena.

*ámbitos de Juventud y Euskera, tras lo cual se da por concluida la fase de estudios de campo. Se redacta un programa de actuaciones piloto que se testearán a lo largo del año 2011.*

5. KULTURA HURBILA DINAMIZATZEA.

*5. DINAMIZACIÓN DE LA CULTURA DE PROXIMIDAD*

5. 1. Ezin izan diogu ekin hurbiltasunezko kultura-ekipamenduen bideragarritasunari buruzko azterketari.

*5. 1. No se ha podido abordar el análisis de viabilidad de normativa sobre equipamientos culturales de proximidad.*

5.2 Kultura-ekitaldien maparen eredua garatze aldera, eta Kulturklik-eko agenda eta aurretik egin den lana baliatuz, ustiapen-azterketaren eredu bat landu dugu, bai eta azterketa hori aurkeztu ere, irizpide sektorialak, kokagune aldetikoak eta linguistikoak kontuan hartuta.ç

*5.2. En desarrollo del modelo del mapa de eventos culturales, contando con la herramienta de agenda de Kulturklik y el trabajo anteriormente realizado se ha procedido a realizar un modelo de análisis de explotación, así como la presentación posterior de la misma atendiendo tanto a criterios sectoriales y de ubicación como lingüísticos.*

5.3 Eskualdeetako eta tokiko kultura-antenen eredua diseinatu aurreko lana bideratzeko, bilkura bat egin dugu Durangaldeko kultura-teknikariekin.

*5.3. Con el fin de realizar el trabajo previo para diseñar el modelo de trabajo con antenas culturales comarcales y locales, se ha mantenido un encuentro con técnicos de cultura de la comarca del Duranguesado.*

6. FINANTZAKETA ITURRI ETA SISTEMA BERRIEN BILAKETA ETA KUDEAKETA.

*6. BÚSQUEDA Y GESTIÓN DE NUEVAS FUENTES Y SISTEMAS DE FINANCIACIÓN.*

6.1 Kultura-kreditua 2011n abian jartzeko esparru logiko bat izatea ahalbidetuko duen txosten-ebaluazio bat egin dugu.

*6.1. Se ha realizado un informe-evaluación que posibilite tener un marco lógico de actuación para la puesta en marcha del crédito cultura en el año 2011.*

Emaitzen zain, martxan jarri da Ikus-entzunezko produkzioak finantzatzeko Programaren deialdi berri bat: interes gabeko mailegu itzulgarriak eman zaizkie zenbait proiekturi, eta kontratuak finantzatzeko maileguak beste batzuei.

*En espera de sus resultados, se ha realizado una nueva convocatoria del programa de Financiación de la producción audiovisual, mediante el cual se han concedido préstamos reintegrables sin interés y préstamos para la financiación de contratos.*

6.2 Ez dugu landu babesletza pribatuari buruzko proposamenen eta egoeraren gaineko txostena.

*6.2. No se ha llegado a elaborar el informe de situación y propuestas sobre Patrocinio privado.*

6.3 Halaber ez dugu aurrerabiderik izan Kultur Kutxa egitasmoaren barruan bikaintasun proiektuak finantzatzeko funts publiko-pribatua sortzeko lanean.

*6.3. Tampoco se ha podido avanzar en la creación de un fondo público-privado para la financiación de proyectos de excelencia dentro del proyecto Kultur Kutxa.*

7. KANPO PROIEKZIOA.

*7. PROYECCIÓN EXTERIOR.*

Kanpo-proiekzioari buruzko jardun osoa baldintzatuta geratu da 2010ean Etxepare Institutuaren sorrerarekin.

*Toda la línea de actuación de Proyección Exterior se ha visto condicionada por la puesta en marcha a lo largo del año 2010 del Instituto Etxepare.*

7.1. Euskadin gertatu diren estatuko nahiz nazioarte mailako 54 jaialdi, ziklo, lehiaketa eta sariketa diruz lagundu dira, ikus-entzunezko, antzerki, dantza eta musikaren sektoreetan.

*7.1. Se ha subvencionado un total de 54 Festivales, ciclos, concursos y certámenes de los sectores de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música, de carácter estatal e internacional, desarrollados en Euskadi.*

7.2. ‘Euskadiko Soinuak-Sonidos de Euskadi-Basque Music’ programaren barruan, kanpoko proiekzioa sustatzeko ekintza desberdinak bultzatu dira, hala nola nazioarteko feria profesionaletan stand-ak jartzea, aurkezpenak eta kontzertuak antolatzea; trukaketa musikalak eta profesionalak eta musika zirkuituak sustatzea.

*7.2. En el marco del programa ‘Euskadiko Soinuak-Sonidos de Euskadi-Basque Music’, se han continuado realizando acciones de presencia exterior del sector, tales como la instalación de stands, presentaciones y conciertos en ferias profesionales internacionales, intercambios musicales y profesionales y apoyo a circuitos musicales.*

